

JARRAIBIDEAK:

Har ezazu A aukera, B aukera edo C aukera, eta osorik egin.
 Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

A AUKERA: ARISTOTELES

Esan dezagun, beraz, ikerketari hasieratik helduz, bizitzeak bereizten duela izaki biziduna gauza bizigabearengandik. Eta "bizitza" hitzak era askotako operazioei egiten dienez aipamena, bizirik dagoen zerbaiti buruz esan daiteke, haietatik bakar bat baizik ez badagokio ere; esaterako, entelegu, sentipen, mugimendu eta atsedean lokalak, elikatzea, zahartzea eta garatzea esan nahi duen mugimenduaz gainera. Horregatik uste dugu, halaber, landare guztiak bizi direla. Begi-bistakoa da, hain zuzen, berengan dituztela *potentzia* eta printzipioa, zeinen bidez handiagotu edo txikiagotzen baitira aurkako norabideen arabera: era jarraituan elikatu eta harik eta elikagaia asimilatzeko gai diren arte mugagabeki bizirik irauten duten izakiak oro ez dira, inolaz ere, gorantz hazten beherantz hazi gabe, baizik eta norabide batean zein bestean eta guztietan hazten dira. Gainerantzean, bizitza mota hau existitzeko ez da beharrezkoa besteak existitzea. Baina besteak existitzeko —usteltzen diren bizidunak—, hark ere existitu behar du. Hau begi-bistakoa da arimaren beste ezein potentziarik ez duten landareetan. Beraz, printzipio honen arabera bizidunei dagokie bizitza. Animalia, berriz, lehenik eta behin, sentipenaren arabera da: hortaz, mugitu eta tokiz aldatzeko gai izan ez arren sentipena duten izakiei animalia deitzen diegu eta ez soilik bizidun. Bestalde, animalia guztiek duten sentimen jarduera primitiboena ukimena da. Eta *elikatzeko ahalmena ukimenik gabe edo sentipena osorik izan gabe ere eduki daitekeen* modu berean, ukimena ere eduki daiteke gainerako sentipenik gabe. Eta elikatzeko ahalmena deitzen diegu landareak ere parte diren arimaren alderdiari. Begi-bistakoa da animalia guztiek dutela ukimena. Aurrerago esango dugu zergatik ematen diren hala gertaera hauek. Oraingoz aski da esatea arima ondorengo ahalmen guztien printzipioa dela eta haien bitartez definitzen dela: elikatzeko ahalmena, sentimenezkoa, diskurtsiboa eta mugimendua (Aristoteles: *Arimari buruz*).

1. Laburpena eta definizioak.	(Guztira: 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer esan nahi du hitz honek: "bizitza"?	(0,75 puntu)
c) Zer da <i>potentzia</i> ?	(0,75 puntu)
d) Zer esan nahi du esaldi honek: <i>elikatzeko ahalmena ukimenik gabe (...) eduki daiteke...?</i>	(0,75 puntu)
2. Garatu gai hau: Antropologia aristotelikoa (arima eta arima-motak, arimaren harremana gorputzarekin...)	(Guztira: 3 puntu)
3. Testuingurua eta alderaketa.	(Guztira: 3 puntu)
a) Autorearen testuinguru historiko, kultural eta filosofikoa.	(puntu 1)
b) Garatu autore honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da autore batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe)	(2 puntu)

OHARRA: Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.

JARRAIBIDEAK:

Har ezazu A aukera, B aukera edo C aukera, eta osorik egin.
Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

B AUKERA: ORTEGA Y GASSET

Gaur egun, berriz, *gizon arruntak* «ideia» zehatzagoak ditu unibertsoan gertatzen ari den eta gertatu behar duen guztiaz. Horregatik *galdu du entzumena*. Zertarako entzun, behar den guztia barnean badaukanez gero? Dagoeneko ez da entzuteko sasoia, alderantziz baizik, epaitzeko, ebazteko, erabakitzekoa. Ez dago, itsugorra denez, bere «iritziak» inposatuz parte hartuko ez duen bizitza publikoko arazorik.

Baina ez ote da hau abantaila? Ez al da, bada, aurrerapen handia masek «ideiak» izatea, hau da, kultuak izatea? Inolaz ere ez. Gizon ertain honen «ideiak» ez dira benetako ideiak, eta beraien jabe izatea kultura ere ez. *Idea egiari xake egitea da*. Ideiak izan nahi dituenak, alde zuzenetik egia maite izateko prestatu behar du eta honek agintzen dituen joko-arauak onartzeko. Alferrik da ideiez edo iritziez mintzatzea arautuko dituen zerbait onartzen ez denean, arau-sorta bat, eztabaidan hartara jo ahal izateko. Arau hauek kulturaren oinarriak dira. Ez zait axola zein diren. Gure hurkoek haietara jo ahal izateko araurik ez dagoenean, kulturarik ez dagoela esaten dut. Ez dago kulturarik haietara jotzeko legalitate zibileko araurik gabe. Ez dago kulturarik, eztabaidan aipagarri diren azken jarrera intelektualekiko mendetasunik ez dagoenean. Ez dago kulturarik, harreman ekonomikoen aurrean babestuko duen trafiko erregimenik ez dagoenean. Ez dago kulturarik estetikako eztabaidek artelana justifikatu beharra aintzat hartzen ez duten lekuan.

Gauza hauek guztiek huts egiten dutenean, ez dago kulturarik; *barbarokeria* dago, hitzaren esanahi hertsienean. Eta hau da, ez dezagun ametsik egin, Europan aurreraka doan masen errebolturen azpian sortzen ari dena (Ortega y Gasset); *Masen errebolta*).

1. Laburpena eta definizioak.	(Guztira: 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer esan nahi du adierazpen honek: <i>gizon arruntak entzumena galdu du</i> ?	(0,75 puntu)
c) Zer esan nahi du " <i>Idea egiari xake egitea da</i> " esaldiak?	(0,75 puntu)
d) Zer esan nahi du <i>barbarokeria</i> hitzak?	(0,75 puntu)
2. Garatu gai hau: Gizakiaren eta kulturaren ikuskera Ortega y Gasseten arabera.	(Guztira: 3 puntu)
3. Testuingurua eta alderaketa	(Guztira: 3 puntu)
a) Autorearen testuinguru historiko, kultural eta filosofikoa	(puntu 1)
b) Garatu autore honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da autore batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe)	(2 puntu)

OHARRA: Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.

JARRAIBIDEAK:

Har ezazu A aukera, B aukera edo C aukera, eta osorik egin.
 Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

C AUKERA: NIETZSCHE

“Nagusi”, “bortxadun”, “jaun”, “ahaltzu”en aurka lurrean egin den ezerk ez du merezi aipatzerik juduek horien aurka egin dutenarekin alderatuz gero: juduek, apaiz-herri horrek, zeinek etsai eta dominatzaileengandik bere buruari asetasuna ematen ez baitu jakin, horien balio propioen errotiko balio-ordezpen baten bitartez izan ezik, hau da, “*mendekurik izpiritualenezko*” egintza bidez. Horixe bakarrik zen egokia apaiz-herri batentzat, apaiz-mendekuaren irrika isilgordeeneko herri batentzat. Juduak ausartu dira, konsekuentzia logiko ikaragarri batekin *balioen identifikazio aristokratikoa* (on = nagusi = ahaltzu = eder = zoriotsu = Jainkoak maitatu) alderantzikatzeraz eta gorrotorik hondargabeenaren (ezintasunaren gorrotoaren) hortzekin eutsi diote alderantzikatze horri, hau da, “errukarriak dira onak; behartsuak, ezinduak, baxuak dira on bakarrak; sufritzen dutenak, ezedukiak, gaixoak, itsusiak dira pietatsu bakarrak, Jainkoaren zorioneko bakarrak, horientzat bakarrik dago zorientasuna, –zuek, aldiz, zuek noble eta bortxadunok, zuek zarete betiera osoan gaizto, krudel, lizun, aseezin, jainkogabeak, eta zuek izango zarete betiko dohakabe, madarikatu eta kondenatuak!... Jakina da nork jaso duen balio-ordezpen judutar horren ondarea... Gerra-aitorpen horrekin juduek bere gain harturiko ekimen desarauzko eta neurgabeki zorigaiztokoari buruz, gogoan dut beste egokiera batean idatzi nuen esaldia (*Ongiaz eta gaizkiaz haraindi: 85. or.*)– hau da, juduekin hasten dela “*Moralaren esklaboen errebolta*”, bere atzetik bi mila urteko historia daukan eta guk gaur egun –garaile gertatu delako bakarrik– bistatik galdu dugun errebolta hori... (Nietzsche: *Moralaren genealogia*).

1. Laburpena eta definizioak.	(Guztira: 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer esan nahi duadierazpen honek: “ <i>mendekurik izpiritualenezko egintza</i> ”?	(0,75 puntu)
c) Zer esan nahi du adierazpen honek: <i>balioen identifikazio aristokratikoa</i> ?	(0,75 puntu)
d) Zer esan nahi du adierazpen honek: “ <i>Moralaren esklaboen errebolta</i> ”?	(0,75 puntu)
2. Garatu gai hau: Mendebaldeko kulturaren balioen kritika eta Nietzscheren moral berriaren sorrera.	(Guztira: 3 puntu)
3. Testuingurua eta alderaketa.	(Guztira: 3 puntu)
a) Autorearen testuinguru historiko, kultural eta filosofikoa	(puntu 1)
b) Garatu autore honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da autore batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe.)	(2 puntu)

OHARRA: Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gaitantolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.